

EUSKARAREN EGUNA 2013

Abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna da. Euskararen balio unibertsala aldarrikatzeko eguna da, eta euskararentzat beste hizkuntzen artean dagokion tokia aldarrikatzeko eguna.

(...) Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia (...)

(Koldo Mitxelena)

Ospatzeko eguna eta konpromisoak hartzeko eguna da Abenduaren 3a.

- **Ospatzeko eguna da**, euskararen bilakaera munduan eredutzat hartzen baita. Euskarak, oro har, aurrerakada handia (0.5 puntu urteko) egin du azken hiru hamarkadotan, inoiz izan dituen baino hiztun gehiago ditu, eta gizarte-bizitzako esparru ugarian goraka doa euskararen erabilera, horietako hainbatetan hizkuntza erabat ezezaguna izan den arren. Ospatzekoa ere bada euskararen 30 urteotako aurrerabidean erabakigarria izan den kontsentsu sozial eta politiko zabala erdietsi izana, adostasun hori bera baita, azken batean, hizkuntza politika integratzaile baten giltzarri nagusia.
- **Konpromisoak hartzeko eguna da**, oraindik ere asko dugulako egiteko euskara ondoan dituen hizkuntza bien berdintasun sozialera heltzea nahi badugu. Gero eta gizarte elebidunago baten bagaude ere, euskarak bidea egin beharra dauka oraindik, elebitasun orekatura iristeko. Eta horretarako ezinbestekoena, euskararen sustapena ardatz nagusi hartuta hizkuntzen eta hiztunen arteko bizikidetzara eramango gaituzten ekimen eta praktika adostu eta demokratikoak bultzatzea eta gauzatzea da. Kontuan izanik, beti ere, erabilera dela euskararen eta beste edozein hizkuntzaren bizi-indarraren erregai bakarra.

Guk, udal talde honek, Euskararen Nazioarteko Egunean gure gogoia adierazi nahi dugu euskarak gure egunerokotasunean gero eta toki gehiago har dezan, eta herritarrak animatu nahi ditugu euskara gero eta gehiago erabiltzeko, ohiko eginkizun eta egoeretako hizkuntza izan dezaten. Dakigunok gero eta gehiago erabil dezagun, eta ez dakitenek euskarara hurbiltzeko urratsak eman ditzaten: horra euskararen geroa eta bizi-indarra bermatzeko ezinbesteko ekinbidea. Gutariko bakoitzaren ardura da.

Horregatik guztiagatik udal honek konpromisoa hartzen du:

1. **Gure herritarrei udal administrazioarekin dituzten harremanetan nahi duten hizkuntza erabiltzeko aukera bermatzeko.** Herritarren eskubideak bermatzea eta defendatzea gizarte aurreratu eta demokratikoen ezaugarri nagusietakoa den heinean, gure udalak bermatu eta defendatu beharreko eskubidetzat jotzen baitu hizkuntza eskubidea bera ere.
2. **Euskara gero eta gehiago udal honetan lan hizkuntza izateko,** udalean euskararen erabilera sustatu eta bermatuz, alkate eta zinegotziek euskararen erabileraren aldeko jarrera erakutsiz, eta euskaraz jarduteko gai diren herrilangileek beren lanean euskararen erabilera areagotuz.
3. **Abenduaren 31karako V. Plangintzaldiari dagokion euskara plana egina izateko.**
4. **Herritarrengan euskararen aldeko atxikimendua sendotzea helburu duten ekintzak bideratzeko,** euskararen aldeko jarrerak sustatzeko, eta herritarrak euskararen munduez disfrutatzerantz animatzeko.
5. **Euskararen erabilera, bereziki gazteen artean eta eremu ez formaletan sendotzeko ekimenak planifikatu eta gauzatzeko,** euskara biziberritu eta sustatzeko plangintza orokorraren baitan.
6. **Udal honen baitan eta gure udalerrian, euskararen sustapenerako ekimen eta politiken inguruko adostasun sozial eta politiko zabal eta sakonena bilatzeko.**

B.A.

